

# **HAMARGARREN GAIA: LEGEAREN INDARRA DUTEN ERREGELAMENDUAK: LEGE-DEKRETUA ETA LEGEGINTZA- DEKRETUA**

## **10.1. SARRERA. LEGEAREN INDARRA DUTEN ERREGELAMENDU MAILAKO ITURBURUAK**

- Legearen indarra duten iturburuak eta Parlamentuaren nagusitasuna
- Legearen indarra duten iturburuen oinarria eta arrazoia
- Legearen indarreko iturburuak eta Parlamentuak pairatu dituen aldakuntzak
- . Gobernuko aitzindaritzaren aurreko mendekotasuna
  - Parlamentua, Gobernua kontrolatzeko erakunde bihurtzeko joera
- Gobernuari Lege indarreko iturburuak sortzeko ahalmena emateak eragin handia du egoera horretan → desoreka areagotzen du

## **10.2. LEGE DEKRETUA**

Premia aparteko eta presazkoaren kasuan

### **a) Lege-Dekretuaren izaera**

- Espainiaren Konstituzioaren 86.1.artikulua: ez-ohiko edo aparteko eta premiazko beharra gertatzen denean (baldintza bideragarria) → Lege-Dekretua, iturburu ohiz kanpokoa edo aparta izango dugu.

- Lege-Dekretuaren ohiz kanpokotasunaren teoria eta praktika

→ Konstituzio Auzitegiaren arabera, horren kontrolerako diren zailtasunak eta mugak

→ Gobernuak berak erabakitzen du, neurri handi batean, noiz beharrezkoa den eta noiz ez Lege-Dekretua erabiltzea

→ Kontuan izan behar da aurreko legealdi guztietan gero eta Lege-Dekretu gehiago sortzen zirela eta Konstituzio Auzitegiak esan zuen premia aparteko eta presazko kasuan aurkitzen garen edo ez egoera politiko hutsa bat dela eta hori dela eta Konstituzio Auzitegia ezin da horretan sartu, ondorioz gobernuak nahi zezakeen guztietan esan ahal zuen premiazko edota presazko kasu batean zeudela. Horrenbestera inoiz iritzi zen non gobernuak oinarririk gabe Lege-Dekretuak erabiltzen zituela eztabaida parlamentarioak saihesteko non Konstituzio Auzitegiak esan zuen bai dela egokiera politikokoa baina muturreko kasuetan Konstituzio Auzitegiak bai esan dezake oso argia delako inolako oinarririk daudenean gaitzesteko gobernuak ahalmena zuela horrelako Lege-

Dekretuak sortzeko. (presupuesto habilitante = baldinatza bideragarria ematen den edo ez).

Gaur egun beraz muturreko kasuetan soilik aurkitzen garenean inolako premia edo presazkoetan ausartzen da Konstituzio Auzitegiak hori atzera botatzeko.

- Lege-Dekretuaren behin-behinekotasuna: berez, eta baldintzarik gabe, duen 30 eguneko iraunaldia

- **Kongresuaren beharrezko baliozkotzea** → osoko bozketan berretsi edo indargabetu (baldintzarik gabeko indar-iraunaldiaren 30 eguneko epean)

### **b) Lege-Dekretuaren mugak eta baldintzak**

- Baldintza bideragarriaren interpretazio hedakorra → egokitasun politikoa, neurri handi batean Gobernuak berak finkatzen duena (muturreko egoeretan, bakarrik, ahalko da horren kontrola egin). → Lege-Dekretuaren erabilera gehiegizkoa edo bidegabea

- Edukiari buruzko mugak edo Lege-Dekretuari ukatutako edo eragotzitako gaiak

- Lege-Dekretuari eragotzitako gaiak eta Lege Organikoaren erreserba.
- Eragotzitako gai-eremuak: Estatuko oinarrizko erakundearen araubidea; I. Tituluan araututako hiritarren eskubideak, eginbideak eta askatasunak; Autonomia Erkidegoen araubidea; hauteskunde araubide orokorra.
- Eragotzitako gai-eremuen interpretazio murriztua

- Iraunaldiari dagozkion mugak: behin-behineko arauak, baina, bakarrik, baliozkotuak izan behar diren neurrian, ez beren ondorengo beste batzuek ordezkatuak izan behar direlako.

### **c) Lege-Dekretuaren baliozkotzea**

- Lege-Dekretua berariaz baliozkotua izatearen beharra

- Lege-Dekretuaren behin-behinekotasunaren amaiera

- Baliozkotzeak ez du Lege Dekretuaren izaera aldatzen

- Kongresuaren eginkizuna ez da legegintzazkoa, kontrol politikoa baizik

→ Lege-Dekretua izaten darrai, baina behin betikoa bihurtzen da, baliozkotzeak ez ditu Lege Dekretuak izan litzakeen akatsak zuzentzen; ez du ezer berritzen

- Baliozkotzeak gehiengoa eskatzen du testuaren osoko bozketan eta ezin da testuan zuzenketarik egin.

#### **d) Lege-Dekretuaren lege bihurtzea**

- Lege-Dekretua baliozkotzeko 30 eguneko epean egin behar da
- Aldez aurretik, baliozkotzea egin behar izaten ohi da, epearen laburrak arazoak sortzen ohi dituelako → presazko prozeduraren bidez egin arren, legea onesteko prozedurak denbora gehiago behar izaten ohi duelako.
  - Lege-Dekretuaren izaera aldatzen da lege bihurtzearen bidez.
  - Bihurtzearen Legeak baliozkotua izan zen Lege-Dekretua indargabetzen du.
  - Lege bihurtzeak berritzen du Lege-Dekretua → Lege-Dekretuak izan zitezkeen berezko akatsak zuzendu edo konpondu daitezke, legean jasotzen diren neurrian.

#### **e) Lege-Dekretuaren kontrola**

- Lege Dekretuaren konstituziotasun kontrola: legearen indarra duen iturburua den neurrian.

##### **- Konstituziotasun kontrolaren edukia:**

- Moldezko kontrola, iturburu aparta izateari dagokionez: baldintza gaitasun-emaileari eta eragotzitako gaiei dagokienez.
- Lege Dekretua sortzeko prozedurari dagokionez, moldezko kontrola.
- Edukiazko kontrola, Lege Dekretuaren edukiari dagokionez

##### **- Lege Dekretuaren konstituziotasun kontrola bideratzeko prozedurak:**

- Baliozkotua izan den Lege Dekretua: konstituzio-aurkakotasun helegitea eta arazoa.
- Indargabetua izan den Lege Dekretua: konstituzio-aurkakotasun arazoa, baina, indargabetua izan eta gero, ezin da konstituzio-aurkakotasun helegitea aurkeztu
- Lege bihurtutako Lege Dekretua: konstituzio-aurkakotasun helegitea eta arazoa (Legean jaso diren xedapenak); konstituzio-aurkakotasun arazoa (Legean jaso ez diren xedapenak). Lege Dekretuaren kontra aurkeztutako eskabideak ez du ekartzen, berez, Legearen kontrako helegitea.

### **10.3. DEKRETU LEGEGILEA EDO LEGEGINTZA DEKRETUA**

#### **a) Legegintza-Dekretuaren izaera**

- Legegintza ahalmena Gobernuaren esku uztea eta legegintza ahalmena Parlamentuak Gobernuarekin elkarlanean egitea.
- Legegintza ahalmena Gobernuaren esku uztea eta horren emaitza diren xedapenen legearen indarra

- Lege izaera ala erregelamendu izaera?

→ Epai kontrolaren arazoa

→ Izaera bikoitzeko arauak: Parlamentuaren eta Gobernuaren lana bateratuaren emaitza dira

- Legegintza Gobernuaren esku uzten duen legea → borondate legegile baten adierazpena.

- Legegintza Gobernuaren esku uzten duen legea

➤ Dekretu Legegilearen sortzeari buruzko araua

➤ Edukia materiala duen araua. → Gobernuak sortu behar duen arauarekin bateratu behar den araua

- Legegintza Gobernuaren esku uzten duen legeak eta legegintza delegatua edo ordezkoa (Dekretu Legegileak) jarduera legegile bakarra eta era berekoa osatzen dute, biek batera.

- Legegintza delegatua ahalmen legegilea da, baina ez etengabea edo iraunkorra, noiz-behinkakoa baizik.

### **b) Dekretu Legegilearen motak**

- Dekretu Legegilearen **bi mota** Espainiar Konstituzioaren 82.2.artikulua:

➤ Ataletan antolatutako testuak, oinarriak ezartzen dituen legearen arabera (araubide berria sortzeko).

➤ Hainbat lege-testu, halako bakar batean biltzen dituen; legeak zehaztu behar du soilik testu bakar batean biltzeko den ala, baita, bildu behar diren legeak egokitzeko, argitzeko eta bateratzeko ere den.

- Oinarriak ezartzen dituen legea, lege arrunta da, ez da iturburu berezia, bakarrik haren egitura adierazten du.

- Oinarriak ezartzen dituen Legeak (lege testuak sortzeko delegatzen denean), gutxienez, Gobernuaren egintza legegilea bideratu behar duten irizpideak eta printzipioak ezarri behar ditu.

- Lege testuak bakar batean biltzeko besterentze-legeak, aldiz, ez du, nahitaez, halakorik ezarri behar

- Dekretu Legegileek, horren mota edozein izanda ere, izaera bera dute

### **c) Legegintza besterenduaren mugak**

- Parlamentuak Gobernuari ahalmen legegilearen emateari mugak ezartzearen beharra

#### **- Besterentze-legearen muga orokorrak:**

- Lege Organikoaren erreserbaz babestutako gaietan ukatua dago besterentzea.
- Berriaz egin behar da, gai zehatzerako eta horren jarduerarako epea zehazki finkatuz; ezinezkoa da oharkabean egitea edo epea zehaztu gabe.
- Besterentzea baliogabetzeko, berriaz egin behar da
  - Espainiar Konstituzioaren 84.artikulua: Gobernuak eska dezake besterentze-lege baten aurka doazen lege proposamenak eta zuzenketak bideratuak izan ez daitezen, horien aurka agertuz.
  - Lege proposamena aurkez daiteke besterentze-legea indargabetua izan dadin, osorik ala zati batean.
- Besterentzea bakarrik gobenuari egin dakioke, eta horrek ezin du, berriz, besterentzerik egin

#### **- Lege testu bakar batean biltzeko besterentze-legearen mugak:**

- Arau-eremua argi mugatu beharra.
- Argi finkatu behar da lege bakar batean biltzeko bakarrik den, ala bildu behar diren testuak egokitzeko, argitzeko eta bateratzeko ere.

#### **- Ataletan antolatutako testuak sortzeko besterentze-legearen mugak:**

- Oinarriak ezartzen dituzten legeek ezin dute oinarri berberak aldatzeko ahalmenik eman.
- Ezin dio Gobernuari ahalmenik eman, besterentze-legea erabiliz, atzerazko eragina izango duten xedapenak sor ditzan.
- Oinarrietako legeak argi finkatu behar ditu besterentzearen xedea eta irispidea eta horren jardueran bete behar diren printzipioak eta irizpideak.

### **d) Legegintza-Dekretuaren mugak**

- Deleгатzea Gorteen zehaztutako epearen barnean erabili behar da; epez kanpo erabilitako delegazioak Legegintza-Dekretuaren baliogabetasuna dakar

- Delegazioa behin bakarrik erabili behar da; horrek ez du esan nahi Dekretu legegile bakar bat sor daitekeenik, baina bat baino gehiago izatekotan, elkarren osagarri izan behar dute

- Legegintza-Dekretu batek ezin du delegazio berririk egin edo ezin dio beste organo baten esku utzi Parlamentuak haren esku utzi duena

## **e) Legegintza-Dekretuaren kontrola**

### **- Auzitegien aldetako kontrola:**

- Auzitegi arruntek badute eskumena Legegintza-Dekretuak kontrolatzeko? Bai, begiratu Espainiar Konstituzioaren 82.6.artikuluak: “Auzitegiei dagokien eskumena alde batera utzi gabe...” → eztabaidagarria, legearen indarra duten iturburuak baitira.
- Izaera bikoitzeko iturburuak direlako? Baina, bakarrik era horretako iturburuak diren neurrian → delegatze legearen eta Legegintza-Dekretuaren arteko loturei dagokienez, bakar-bakarrik.
- Legegintza-Dekretu *ultra vires*: delegatze-legeak ezartzen duenaren aurka sortu dena, delegazioaren mugak gaindituz edo urratuz.

### **- Konstituzio Auzitegiaren kontrola (legearen indarreko iturburuak izatearren):**

- Espainiar Konstituzioaren 161. eta 163.artikuluak (konstituzio-aurkakotasunaren eskabidea eta arazoa edo galdera).
- Legegintza-Dekretuak iturburu gisa dituen berezitasunen kontrola.
- Legegintza-Dekretuaren sortze prozedurari buruzko kontrola.
- Legegintza-Dekretuaren edukiari buruzko kontrola.

### **- Parlamentuaren kontrola:**

- Espainiar Konstituzioaren 82.6.artikuluak: Parlamentuak ezar ditzake kontrol erabide gehigarriak (“... kasuan kasuko kontrol erabide gehigarriak ere ezar dezakete eskuordetza-legeek”).
- Izaera politikoa izango dute halako kontrol erabideak: delegazioaren parlamentu-kontrola eta hauek eragin eta ondorio politikoak izango dituzte, eta ez zuzenbidearekin lotutako ondorioak.